

# XENPELAR BERTSO ESKOLAK LAU URTE BETE DITU

Bai, lau urte bete dira Bertso eskolari hasera eman zitzaio-  
la. Beraz, mila bederatzirehun larogeita zazpigarren urte-  
an, hain zuzen ere, ikastaro hartan hamalau bertsokidez  
osatutako talde batez sortu zen bertso eskola.

Bertso eskola antolatzearen ideia bertsozale talde batetik  
bultzatua izan zen, zergatik? Besteak-beste Euskal Herriko  
zenbait herritan sortuak ziren bertso eskola, gure herrian  
ere, beste hainbeste egin genezakeela uste izan genuelako.  
Beraz, asmo horretatik abiatuz, lortu ahal izan genuen ai-  
patutako hamalau bertsozaleen taldearen laguntzarekin ha-  
sierako antolamendua.

Askotxok daki (batik bat, bertsozaleek), gure herria bertso-  
lari askoren sorleku izana dela, nahiz egun badirudien inoiz  
historiarik izan ez duen herrian bizi garela, izan ere, biztan-  
le gutxiko herri bat izatetik berrogei milatik gorako biztan-  
lago izaterainoko hazkundera eduki bait du gure herriak.

Hogeitamarren urteren buruan hazkunde ikaragarria herri  
honetan, horrez gainera biztanlegoaren gehikuntza ia era-  
bat etorkinekin bete da.

Guztionek berarekin ekarri du gure herriko historiaren zen-  
bait atal interesgarriren bazterketa, horri, tamalez berrogei-  
ta..., urte luze gau beltzak ezarri zion kalte izugarria; egun  
oraindik, gure ahozko literatur herritarrari zor zaiona ez  
zaio itzuli ezta urrutitikan ere, eta euskara eta euskal kultu-  
rarekiko nagikeriak ez baditugu astintzen eta lanean ihar-  
duten, betirako itoko zaigu/gara erdal itsaso honetan.  
Horrenbestearainoko miseri gorriara iritsi da gure sustraien  
egoera.

"Xenpelar Bertso eskola"-k eta bertsolaritzaren ildotik ja-  
rraiz, buru-belarri murgilduak gabiltza geure neurri apale-  
an herri honen bertsolaritzaren historia herriratu nahian,  
eta aldi berean, bertsolari berriak, gaurkotuak egiten la-

guntzen.

Bertso eskola sortzeko asmoarekin hasi ginenean azkar  
ohartu ginen hutsune ikaragarria genuela historiari zego-  
kion atalean, eta ezin zela moduzko eskolarik sortu urte lu-  
zeetako etenaren betetze lanetan saiatu gabe. Nolatan ba-  
da hasi ezertan, are gutxiago Xenpelarren izen erabili, be-  
ronen eta herri honek izan dituen bertsolari ezagunen his-  
toria jakin gabe, areago, esan dezakegu beraiek sortu zute-  
la eskola herri honetan eta Euskal Herrirako zabaldu zela,  
geroago, eta gaurdaino bizirik dirauena..., ikus bestela:  
Xenpelar, Juan Krutz eta Joxe Zapirain, Saiburu hiru  
anaiak, Zabaleta bi anaia, Taberna, Urrutia, "Frailia",  
Txintxua, Telleritxiki, Panderitarrak, Salaberria,  
Joxepantoni Aranberri eta abar luze bat...

Errenterriak beraz badu bertso eskola eta ez alajangoikoa  
gaur asmatutakoa! Xenpelar garaitik gaurdainoko bertso  
arlotako historia ezin utzi galtzen, alde batetik, baina hau ez  
dugu lortuko soilik historiaren liburuko jakintza hutsatik,  
nahiz eta hori beharrezkoa izan. Herri honetan ahalegi  
egitea dagokigu bertsolari gazteei aurrerabidea erretzen,  
horretarako Ikastolak edo euskara irakasten den edonon  
behar da bultzatu bertsolaritza, gu "Xenpelar bertso esko-  
lan" borondatetsu eta kementsu gauzka edonork bertsolari  
gazteak sortzen laguntzeko, hauxe da herri honetan beste-  
ren artean dugun erronka eta lortuko dena elkarrekin or-  
poz-orpo, besoz-beso saiatuz gero.

Jarraian lau urte hauetan bertso eskolan bete ditugun la-  
nak, eta zein helbururekin azalduko ditugu.

1987 - 1988 Ikastaroa

Hau da gure lehen ikastaroa. Borondate handia eta gogo

Joxe Zapirain bere sendiarekin (1872 - 1957)



haundiagorekin bultzatu genuena. Beronetan oinarrizko ikasketak iraktsi zitzaizkigun, hala nola: koplak, zortziko txikia, zortziko haundia, hamarreko txikia, hamarreko haundia..., beraz, bertso batek dituen elementu nagusiak: Errima, Neurria, Doinua lantzen. Aldi berean, bertsoak zirriborrazten ikasi; esan liteke ikastaro honetan lehen pau-suak ematen ikasi genuela, Kontxi Begiristain urnietarra-ren eskutik, muxutruk.

Lehen ikastaro honetan eta bertso eskolaren haserako bultzaitzaileetarikoa bat Mikel Arrastia izan genuen. Berarentzat gure oroitzapen gogozkoena.

## 1988 -1989 II Ikastaroa

Bigarren ikastaro honetan abiapuntu zabalago batetik ekin genion lanari, aurreko urtean ikasten hasitako ildoari jarraikuz gainera, Oretetan aintziko bertsoaritzaren historia egingoarekin batze lana urratzen hasi genuen.

Hori dela bide, helburu nagusia guretzat zen, ikastaroa ez zedin teknizismo hutsean burutu, bertso idatzien zirribor-rak moldatzeaz gain zenbait bertsoaritzaren bizitzaren obrak ezagutzea. Hau burutu ahal genezan, hiru atal nagusitan banatu zen ikastaroa:

a.- Xepelarretik Txirritarainoko garaia.

b.- 1936. urtetik 1970 urterainokoa.

d.- 1970. urtetik egungo bertsoaritzarainokoa.

Hiru atal horiek ikutzeaz gain ikastaro honetan, AUSPOA bertso liburu bildumatik, Antonio Zabalak idatzitako "ZAPIRAIN ANAIK" liburutik, gureganatu ahal izan genuen, Joxe eta Juan Krutz ZapiRAIN anaien bertso lanak, txoil in-

teresgarriak iruditu zitzaizkigunak, eta bi anai hauek goralduko genituela erabaki zen. Omenaldirako eguna 1989. urtean eta Abenduaren 21 ean, Santo Tomas egunean egin zitzaizen bi anaiei gorazarrea. Santo Tomas egun horretan bazkari batean bildu ginen bertsoakideok, omendutakoen sendiak, eta eskualdeko bertsolari zenbaitek ere hartu zuen parte.

Bazkaldu ostean ez ziren ez aspaldikoak gorde eta, noski, bertsoak floritu ziren (negu aroa izanagatik), mahaikidekoen artean, errima, neurri eta doinu moeta guztietakoak. Arratsaldean, berriz, Xepelar kultur etxean osatu zen omenaldia, Joxeren semea Manuelek eta Juan Krutzen semea Bixentek jaso zuten oroigarria eta txapel bana beuren aiten izenean. "ZapiRAIN Anaiak" lehen bertso paper lehiaketaren sariak ere bertan banatu ziren. Egund gogoangarri hau amaitzeko, bertso saio eder bat bete zuten Joxe Agirre, -Lazkaotxiki-, Iñaki Murua eta Peñagarikanok.

Ezin utzi aipatu gabe bertan Pilar Etxebestek kantatu zituen bertso hunkigarriak.

Bertso paper lehiaketa honetan saria jaso zuten bertso paperak, bata helduen mailakoa eta igaz 1990.eko OARSO honetan publikatu zirenak, eta bestea, gazteen adinakoa, aurtun hemen agertzen direnak.



## GUREA ZAIN DEZAGUN

Doinua: "Lurraren pean"

Egilea: Joxe Luis URDANGARIN GOÑI

1.- Bi milagarren urtearen zai  
hamaikaren faltan gaude  
hainbat urteko esperientzia  
behar litzake mesede  
dirudienek karramarroen  
tankean gabiltz gu ere  
oraindik ez da gizona egin  
bere buruaren jabe,  
martxa honetan aurkituko da  
laister bururikan gabe.

2.- Gure mundua ilunduz doa  
etengabe egunero,  
eta gizonak itzal eginez  
hala jarraitu ezker,  
ondoren berriz piztuzerikan  
inork ez beza espero;  
beranduegi izan baino le(he)n  
esnatu beharra dago  
presa alferrik egingo dugu  
urak pasa eta gero.

3.- Naturak azken urte hauetan  
jasan du bere zigorra  
Izadia da maitasun faltan  
dagoen baratz lehorra,  
gu berriz gara probetxu bila  
lurpean dagon zatorra,  
baratza hilda zatorra ere  
laister desagertuko da,  
kontzientzidunak ezin du galdu  
modu hortako altxorra.

4.- Duela gutxi jaso du gainez  
azkeneko ostikada  
errotatikan pasa beharreko  
urrengoa Leizaran da  
gure naturan bihotza ere  
lasai ezin zuten laga  
diru egarriz dauden batzuek

gutziz nahi badute onda  
basamortuko ohiartzunean  
egingo dute algara.

5.- Goizez argia nagusitzen da  
mendi lerroen gainetik  
txantxangorrien kantu biziak  
prestatutako bidetik  
pagoak bere soineko ederra  
zabaldu ohi du lurretik  
intza ezeta paseiatuaz  
dabil horbel lehorretik  
bizia soilik jariatzen da  
Leizaran paradusitik.

6.- Ibaian zehar hainbat amorrai  
lurrean abere mila  
artzai jatorra makila eskutan  
badoa ardien bila  
nekazaria gurdiarekin  
urratuz giro isila.  
Dana ez dugu oraindik galdu  
nahiz ehusteko izan zaila,  
hau bizi gabe dagon guztia  
frogatzera joan dadila.

7.- Ezer baino le(he)n hartu dezagun  
hontza pentsatzeko lana  
pakea hautsiz badator eta  
"autobia"-ren izena,  
lagun dezagun irauan arazten  
bere benetako sena  
denon artean bizkarreratu  
enparatutzeko zama,  
ondorengoek senti dezaten  
guk sentitzen dugun dana.

8.- Hainbat jenderen itxaropena  
estali du autobiak  
alkitran beltzez ilundu nahian  
gure zelai orlegiak  
mozten dituzte mila zuhaitzen

enbor sendo (e)ta lodiak  
trafiko seinal bihurtzen dira  
inoistro (e)ta loriak.  
Hori pentsatu hutsakin malkoz  
betetzen zaizkit begiak.

9.- Bainen malkoak ezin du ase  
zuzentasun egarria  
beretzat ona denaren alde  
altxa behar da herria.  
Zenbaitek pozik hartuko luke  
gure mendi-alderdia,  
ez da edonon aurkitzen eta  
hain leku zoragarria,  
gerora ere izan dadila  
inbieren iturria.

10.- Arlepo, Erlaitz, Santa barbara  
Lapurtxulo (e)ta Masola,  
Aparrain, Lastur, Languarrerekin  
Listorreta eta Gorla...  
galdu artean ez gara oharzten  
gure ingurun dirala.  
Horregatik eskatera bat  
egin nahi dut nola-hala  
Gure zati bat diraden gauzak  
errespeta ditzatela.





# BERTSOLARIYA

15 XENTIMO

1. Urtea Viteri, 32-Renteria 1931ko Agorrilla'ren 20'an Viteri, 32-Renteria 1

## BERTSOLARIYA

Asteroko BERTSOLARIYA izeneko au. atera de zeren ikasi naya edo gogo-lagoen bertsoak eta gogora berian ez dakoz samur lengo bertso zar edar syok biltzen nolana, zergatik geyenian arkitzen geran ezin gerezela guk nai dituganak akitu.

Ezagutzen ditugu onelako gertaera asko, beren gogo aundiyak eramank aztarra, beren gogialak egitez bertso-rik ederrenak biltatu eta txukun liburu bat egitiak baita lagun batzuek pozik eskatu ere irakurtzeko.

Eta onloren geyenian gertatzen dana, zere lagun edo adiskideari eman irakurtzeko, pero zere ez digula atzera biar bezela eman, au da, bezir zu gana eskutarratzeko ondatu edo orri batzuek kenduak (eta au ia okerrera) agyan geyen liburuak zagan itxi. ez.

**BERTSOLARIYA** asteroko onen asma da bertso-rik ederrenak biltu, eta liburu bikain bat gitea (3.500) zar eta be-

1931 urte beteian izango ditu gutxienez, lau orrialdi, geyen gordeto ditugata liburu osoa egin dezan. BERTSOLARIYA onek agurtzen dityo danan.

zarrak asko aztuta txokoan dauden Xabaletgi, Per-nando, Udarregi, Korrola, Ardiotx, Xenpelar, Larra-buru, Lertzundi, Pello-Errota, Txillas, Lesoti, Bor-londo, Bilintx, Anton Ixkifia, Otaño, Mendialge,

eta beste geyagorenak.

Txiritak itza eman digu, asteroko orri bat onan bateko dubela bere bertso berriak eta geyen-za ondoren, Lesoti, Sas-laburu, Telleri-Txiki, Lo-petegi, Urretu, Esbeita, Rejinn, Gaztelu, Juan Jose Lexo Erraskin, Za-baleta anayak, eta beste geyeriko gogo duten guziyak, zarrak eta ger-tiak izango dute lekua nai badute idatzi, eta bi-gildu (Imprenta de Ma-cazaga Calle Viteri, 32 Renteria).

Azkenik urteko arpi-dea edo pagatu bearra (7 pezeta) izango ita eta asteroko onen sartzen diranai emango zaye ba-koitzai txukun gureltze-ko liburu gañeko azal eder bana.

Asteroko onek (15 xentimo) saritu bearku-da eta urtian 5 bidet asteroko da 8 orriku ba-koitza 25 xentimotan.

Asteroko onen saritu eta liburuak egiten an- diranai gildu edo atsi- tzen bazaye, beriz e- katu besterik ez aluku.



Jose Manuel Lujambio (TXIRITA)

### “BERTSOLARIYA” gaur zergatik?

“BERTSOLARIYA” izena ez da (alboko orrian irakur daitekeen bezala) Bertso Eskola honi otutakoa, ez da ez! guk asmatu ta plazaratu den izena. Izen honek baditu jadanik 59 urte, izango dira oraindik ere izen hau irakurtzerakoan bere gaztaroko oroi-tzapenak piztuaraziko zaizkionak. Juan Joxe Makazaga Mendiburu-ren eskutik jaino zen “BERTSOLARIYA” haretan, egun bai-no errazago izango zen herriko bertsolarien lanak publikatzea, ez baita txantxetakoia orduko bertsolaritzaren giroan, gure he-riak zituen bertsolari sorta hura edonon aurkitzea. Egungo Oreretan larri eta ia ezinean gabiltza euskaldunak, erdalduntze giro sakona batetik eta zenbaitzuren epelkeria bestetik ia! geurea egiteraino eramaten ari dira hizkuntza, eta hortik kale gorrian zehar gabiltz euskaldunok oraindik-orain buru jaso ezinik. “BERTSOLARIYA” bertso-errebista plazaratzearekin gure herrian bertsolaritza bultzatzen dutenekin batera, historiaren zati bat lotu nahi dugu, bertsozaletasunarekin, Makazagak bere garaiko histori hura isladatu zuen bezala. Xenpelar Bertso Eskolakook ere, gure herriko bertsolaritzaren mezulari izan nahi genduke eta urtearen buruan eginikoak BERTSOLARIYA zaharberritu honetan eman nahi genituzke. Halaber Xenpelar Bertso Eskolatik eta bertsolaritzaren ildotik, gure lana eskaintzen dugu herrian, erdaldun giro latz honetatik euskaldun sena berresku- ratzearen bidetik abiatu gaitezten.

**Xenpelar Bertso Eskola**

### 1989 - 1990 III Ikastaroa

Ikastaro honetan ere geure bertso zirriborro lanetan iharduteaz gain, beste aurrerapausu bat gehiago erantsi genion aurreko bi ikastaroetan egindako lanari.

Bertso eskolaren barne lana urratutako bidetik betetzen genuen, baina herritaratze lanak era zorrotzagoz moldatze lanari ekin genion, herriko historiaren bilatze eta sakontze lan horretan, hor topatu genuen 1931. urtean Juan Joxe Makazagak bere irarkolan publikatzen zuen “BERTSOLARIYA” bertso aldiz-kariaren aztarrena, eta zer egokiago izen bereko bertso errebis-ta publikatzea baino, eta berau burutu ahal izateko Udaletxeko Euskara Batzordeari aurkeztu genion gure asmoa.

Gora behera batzu zirela tarte Udal Euskara Batzordeak luzatu zuen “BERTSOLARIYA” berpublikatzeko laguntza. Bertso errebistak 1990. urtean eta santo Tomas egunean banatu zi-ren, 1.200 bat ale, eskuratu izan zutenek dakiten bezala. Egun berean, abenduak 21 alegia, burutu zen “ZAPIRAIN ANAIK II. BERTSO PAPER LEHIAKETA”.

### 1990 - 1991 IV IKASTAROA

Pausoz-pauso, beti ere aurreko urtearen egindakoak sendotu eta hobetu nahian, ikastaro honetarako bertso eskolaren barne-ko eta kanporako lanak borobiltzen saiatu gara. Hau gauzatu ahal izateko egitasmo zabal bat aurkeztu dugu Udaletxeko Euskara Batzordean, atal nagusienak hauexek izanik:

- a.- Laugarren Ikastaroa
- b.- “BERTSOLARIYA” bigarren errebista publikatzea.
- c.- “Zapirain Anaiak III. bertso paper lehiaketa”.
- e.- “Bertso Astea”, Abenduaren 16tik 21era.

Aste horretan, ZABALETA ANAIK omendu nahi dira Santo Tomas egunean. bi hitzaldi eman nahi dira ere bertsolaritzari buruzko gaiarekin. Gure asmoan ere bertso esku-izkriburen era-kusketa bat egitea dago aste osoan.

Guzti hau egitasmo eta aurrekontu batean aurkeztutu dugu udal Euskara Batzordean eta oraindikan erantzunaren zai gaude.

Bertso eskola honekin harremanetan jarri nahi duen edonork deitu beza udal Euskara Zerbitzura, tfnoa. 51.58.16



**JOANITO ZABALETA**  
(1894 - 1950)



**PELLO ZABALETA**  
(1897 - 1967)

# BERTSO ESKOLAKO KIDEOK ESKEINITAKO

## BERTSO SORTA

(1)  
Duela lau bat urte  
sortu zen eskola,  
sentimentu ohola,  
Xepelar izenean  
bertso ikastola.  
Euskara bultzatzeko  
hoberikan nola,  
ez bait zaigu oraindik  
kutsatu odola.  
Norbaitek ote dio:  
"Neri bost axola?"

(2)  
Egoera larria  
dugu Oreretan  
Euskal herrietan  
Ipar hegoaldean  
aspaldi honetan,  
gure nortasun bera  
besten eskuetan  
noiz arte ibiliko  
geurekin zorretan  
plazan edo kartzelan  
berdin da benetan.

(1)  
Bertsolaritzan gara  
nahiko historia  
batzuentzan beinepin  
ardatz ta kabia,  
Xepelarren herriak  
zeozer hobia  
merezi duelako  
anima zaitia,  
martxan jarri-dezagun  
eskola berria.

(2)  
Zertxobait daramagu  
ahalegin honetan  
bertso paper lehia ta  
omenaldietan  
"Bertsolariya" rekin  
Santo Tomasetan.  
Inor plazaratzeko  
ezinaz penetan  
begiak jarriakin  
ikasle gartzetan.

(1)  
Demagun gaur bertan\*  
kale ta dendetan  
hizketan baino maiz  
gerala kopletan,  
bada suerte genduke  
ari naiz benetan  
hazia zabaldu den  
gure Oreretan.

(2)  
Zortzikote aparta  
bertsoak egiten  
lau bat urtetandikan  
horretan ikasten  
bertso zaharretatikan  
doinuak abesten  
mamitzen ari gera  
kaleratu daiten

(Doinua: Orioko baiaarenak)

(1)  
Euskadin jaio ginen  
euskaldun gara gu  
maitea dugu  
etsaia zapaltzear  
dabilta gau ta egun.  
Ez gaitzen ikara  
ez gaitzen kizkur  
noiznahi ta edonon  
ta ez izan beldur,  
tente ta ez makur,  
defenda dezagun  
Euskadi izan arte  
oroar euskaldun.

(Doinua: Betroiarena)



(1)  
Bertso honetan badaukat zer bait  
jendeari esateko  
nahizta ez jakin gaur nere nahia  
hemen ote den beteko  
Oreretako bertso eskolak  
jarraitu dezan hobeto.  
Gazte jendea behar du bertso  
eskola hau indartzeko,  
urte askotan bertso munduan  
ilusioz jarraitzeko.

(2)  
Bertso kantari hasia nago  
jende gaztearen eske  
gaur Oreretan nolaz daukagun  
horrenbeste jende gazte.  
Bertso eskolan sortzen ditugu  
hainbeste nahaste-borraste  
ondo pasatzen ez dugunikan  
orain etzazue uste.  
Bertso eskola zai daukazute  
ta animatu zaitzte.

(1)  
Oreretan badugu  
Xenpelar eskola,  
euskaltegia berriz  
txoko ta txabola,  
pelota tiki zena  
orain degu bola,  
azkenean euskarak  
sartuko du gola

(2)  
Gazte naizen aldetik  
nahi nuke mintzatu  
eta ahal den guztia  
honuntza bultzatu.  
Euskal giroa bertan  
dezagun suspertu  
bertso eskola honek  
zure beharra du.

Euskadin jaio ginen  
euskaldun gara gu  
maitea dugu  
etsaia zapaltzeaz  
dabilta gau ta egun.  
Ez gaitezen ikara  
ez gaitezen kizkur  
noiznahi ta edonon  
ta ez izan beldur,  
tente ta ez makur,  
defenda dezagun  
Euskadi izan arte  
oroan euskaldun.

(Doinua: Betroiarena)

(1)  
Bildu nahi baditugu  
furituri onenak  
lana zuzen eginez  
bere ondorenak,  
bil ditzagun batera  
gogo ta kemenak  
utzi beharko dira  
alperkeri denak.

(2)  
"OARSO" iritsita  
nor denaren esku  
jakin beza herria  
dela bertso leku.  
Bertso eskola nahi degu  
erabat gaztetu  
Xenpelarren baratza  
berdadin loretu.

